

# Aretxagazeta



ETA GAINERA...

Ze barri?

GIZARTEA  
Atxorrotzek  
diru kontuen berri /9

LEINTZ GATZAGA  
Gatzagaren gaineko  
diaporama /10

## 100 urteko ezkiaren bukaera

**GUARDIAKO FARMAZIA**

**ZAPATUA, 12**  
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

**DOMEKA, 13**  
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen .....	943 71 49 07
ARETXAGAZETA .....	943 79 86 21
Fax .....	943 77 18 54
Basotxo .....	943 77 09 81
Euskaltegia .....	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea .....	943 71 18 62
Hezibide elkarteak .....	943 79 31 32
Industrialdea .....	943 79 62 80
Instituta .....	943 79 79 00
Kiroletxea .....	943 71 26 28
Kultura etxea .....	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola .....	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI .....	943 79 57 40
Liburutegia .....	943 71 18 62
Loramendi EE .....	943 77 09 70
Ludoteka .....	943 79 05 81
Mankomunitatea .....	943 79 30 90
Murruxiko ME .....	943 79 93 74
Musika Eskola .....	943 79 36 50
Osasun etxea .....	943 79 74 58
Otalora .....	943 71 24 06
Parrokia (Bulegoa) .....	943 79 18 42
Pausoka haur esk. ....	943 77 03 77
Postetxea .....	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea .....	943 79 17 00
Saretxo .....	943 71 26 56
Taxi geltokia .....	943 79 22 33
Udal Bulegoak .....	943 71 18 62
Udalzaingoa .....	943 71 18 63
Urats Gain .....	943 79 99 11

**UDALZAINGOA**  
Arrasate .....

**LARRIALDIK**

SOS Deiak .....	112
Eskualde ospitalea .....	943 03 53 00
Ertzaintza .....	943 79 71 99
Gurutze gorria .....	943 76 55 76
Larrialdia .....	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) .....	943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domekak: 11:00, 12:00  
Zapatuak: 19:30  
Lanegunak: 19:00

**SANTA RITA**  
Domekak: 09:00  
Zapatuak: 18:30  
Lanegunak: 08:00

**BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO**  
Domekak: 11:30

**MENDIOLA**  
Domekak: 12:30  
**GELLAO/GALARTZA/IZURIETA**  
Ez dago mezarik

**OHARRAK**

**TAKOLO, PIRITX ETA PORROTX**  
Udaleko Kultura Sailak antolatuta, urtarrilaren 19an, zapatua, "Aupa Kintxo" emanaldia izango da ikusgai kirol etxean, arratsaldeko 7:00etan. Sarrera 2,25 eurokoa da aurrez hartuta eta 3,6 eurokoa bertan hartu ezker.

**IKURRINARI OMENALDIA**  
Ikurrinaren legeztapenaren 25. urteurrena ospatzen dela eta hainbat ekintza antolatuko ditu udalak datozen egunetan herrian.

Urtarrilaren 16tik 23ra bitartean, argazki erakusketa egongo da Murruxiko lokalean.

Urtarrilaren 17an, eguena, "1977an Ikurrinaren legeztapena" gaiaren inguruan hitzaldia emango du garai hartako alkateak. Kurtzebarri eskolan, arratsaldeko 19:00etan izango da ekitaldia.

Urtarrilaren 19an, zapatua, Ikurrinari omenaldia egingo zaio. Udaletxeko pleno aretoan egingo da hasierako ekitaldi politikoa eta ostean herriko plazan batuko dira gura duten herritar guztiak.

Urtarrilaren 20an, domeka, bestalde, UDAko preferente taldeak Ibarra futbol zelaian jokatu duen partiduan, Ikurrinaren omenezko ekitaldia egingo da.

**LORAMENDIREN AGENDA**

**LORAMENDI LITERATUR LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**  
Loramendi euskara elkarteak antolatutako eskola arteko XIII. Loramendi literatur lehiaketako sari banaketa egingo da urtarrilaren 17an. Arratsaldeko 19:00etan izango da ekitaldia udaletxe zaharrean. DBHko kontaketa onenek eta Lehen Hezkuntzako aurkeztutako ipuin eta poesia guztiek jasoko dituzte sariak.

**ORAINDELA 9URTEARETXABALETAN**

**Juan Arregiri herriko intsignia jarri zioten**

1993ko urtarrilaren 17an, Aretxabaleko herriak omenaldi beroa egin zion Juan Arregi enpresariari. Dantza taldea, Abesbatza, bertsolariak, elkar-teak... denek hartu zuten parte omenaldian, eta Pedro Mendietak alkateak herriko intsignia ezarri zion, herri guztiaren izenean.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Imintziñua"*

Aurpegiz, nahiz eskuz, nahiz bestela egindako keinua.  
-Aitta-zanak bajaukan esaera ori: imintziñua besteik eztauke ume onek.  
-Orrek aren zera oso edarki eitten dau aren jestua, aren kiñua ero, aren imintziñua ero, aren plantia ero.



**ZORIONAGURRAK**



ARETXABALETA  
**Iker Hernández**  
7an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako Mararen partetik.



ARETXABALETA  
**Enea Borrego**  
7an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat etxeko partetik.



ARETXABALETA  
**Miren Antxia**  
8an, 3 urte. Zorionak, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Maialen Mendieta**  
9an, 4 urte. Zorionak, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Ana Santander**  
9an. Zorionak eta urte askotarako Gurea-kolore kideen partetik.



ARETXABALETA  
**Oier Etxebarria**  
12an, 30 urte. Zorionak, zure lagun taldekoaren partetik.



ARETXABALETA  
**Eñaut B. de Heredia**  
17an, urtebete. Zorionak, Alaitzen eta etxeko guztien partetik.

**BABESLEA**


**Zorionak denoi !!!**  
Foto  
**Urkiola**  
Argazkidenda  
HERRIKO PLAZA 5  
20550 ARETXABALETA  
TELEF 943 79 39 20

- \* ESTUDIOAK
- \* EZKONTZAK
- \* JAUNARTZEAK
- \* ENMARKAZIOAK
- \* DIGITAL LANAK
- \* KAMARAK ....

*Beti karretea edo albuma dohanik !!!*

**Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak**

MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua  
Aingeru ibiltokia 41  
ESKORIATZA  
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05



**MIRVAT**





BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

## Saritik sarira

Gabonak urrun gelditu zaizkigu, baina hauei erreparatxo bat egitea ez dago txarto. Ekitaldiak ugari izan dira jaiotan, baita sariak ere. Hortxe izan da eskaparate lehiaketa. Herriko dendek ez ohiko bizitasuna eta poztasuna eman diete gabonei. Epai-mahaiaren ustez, erakuslehorik onena aurten Aretxabaleta iturgintza dendarena izan da. Bigarren saria Zare artisau dendak eraman du, eta hirugarrena Pagaldai opari dendak. Zorionak hirurei, baina baita gaintzako komertzioei ere. Gabonetako beste saritu edo hobe esanda omendua **Jon Ander Larrinaga** izan da. UDAk omenaldia egin zion jokalarari ohia. Ondo merezitakoa, jakina. Batek baino gehiagok penaz agur esango zion UDAko goletzaille haundi honi.

Sariez berbetan ari garela, beste herritar batzuek sari potoloa irabazi dute. Neska koadrila bati loterian laugarren saria tokatu zaió. Bartzelonan erosi omen zuten loteria, eta hara ze zortea! Etxera ere etortzen da noizean behin loteria. Tokatzeko, betiere, jokatu egin behar. Ah! Aretxarte elkarteak ere zortea eka- rri du herrira, loteria duzuenok adi egon!, zerbait tokatu da eta. Urtarrileko aldapa arintzeko ondo etorriko da, duda barik.

**HIRIGINTZA**/Herritar ugari hurreratu da udaletxera ezkiaren egurra eskatzera

# XVIII. mendekoa izan daitekeen ezkia bota zuen haizeak udaletxeko lorategian

MIRARI ALTUBE

Urte hasierarekin batera heldu zen haize zakarrak udaletxe osteko lorategian zegoen ezki ederra bota zuen errekarara. XVIII. mende hasierakoa izan daiteke eta herriko kuriosoak enborreko eraztunei begiratu eta zenbat urte izan ditzakeen jakin guran dabilta.

Urtarrilaren 3an ibili ziren haize bolada zakarrek ezusteko bat baino gehiago sortu zuten eta gurean zuhaitza bota zuen lurre-ra. Udaletxeko lorategian zegoen ezkia erreka aldera erori zen eta erreka beste aldean dagoen Lau-sitta auzoko jolaslekuraino heldu ziren adarrak. Zorionez ez zuen inor azpian harrapatu, ez oinezkorik ezta autorik ere. Hala ere zuhaitzak sekulako zuloa utzi zuen udaletxe osteko parkean.

### MAKAIKOEK MOZTU ZUTEN

Zuhaitza erori ostean, Makai lorazaintza enpresari eman zitzaion berria eta berehala agertu ziren bertako langileak ezkia kentzera. Lehenengo adarrak moztu zizkieten eta enborra garabiaren laguntzarekin mugitu zuten. Orain, Izurieta auzo azpiko zelai batean dago enborra Arbizelai parean. Herritar ugari etorri da gainera, udaletxera ezkiaren egurra eskatzera. Oso egur ona ei da lantzeko, eta tailagileek gustura hartuko lukete euren lantxoak egiteko.



Itxura ederra dauka ezkiaren enborrak eta lantzeko ere oso egur ona ei da.

### 100 URTETIK GORAKOA

Makaiko lorazainen esanetan sustriak ustelduta zituelako jausi zen ezki galanta. Izan ere ehun urtetik gora izan ditzake zuhaitzak. Ustez, XVIII. mende bukatuakoa edo XIX. mende hasierakoa

da, udaletxea dagoen jauregia, Arratabe jauregia, ordukoa baita. Hala ere zuhaitza zaharxeagoa delakoan daude. Herritar batek baino gehiagok eskatu zion Makairi enborra mozteko, horrela eraztunak ikusi eta data zeha-

tzagoa jakin ahal izateko.

Ikerketek aurrera darraite bitartean, zuhaitzak jausterako an apurtu zituen harrizko hesi konpontzen eta inguruak txukuntzen dabilta langileak lorategian.

## LABUR

### Ikurrinaren legeztapenaren 25. urteurrena dela eta ekitaldi ugari egingo dira herrian

Hogeita bost urte bete dira Euskal Herrian ikurrina legeztatu zela eta hori ospatzeko ekitaldi ugari antolatu ditu udalak datozen egunetarako. Martizenean hasita esaterako, argazki erakusketa egongo da Murrukixoko lekuan. Eguenean bestalde,


hitzaldia emango da 1977an ikurrina legeztatu zenean gertatutakoaren inguruan. Garai hartako alkatea izango da hizlaria. Hala ere zapatua izango da ikurrinaren omenaldiaren ekitaldi nagusia, lehenengo pleno aretoa eta gero Herriko plazan.

### Aretxabaleta Sariak banatuko dira

Hainbat urtetan sariarik eman barik egon bada ere, aurten Aretxabaleta Sariak banatuko ditu udalak. Urtarrilaren 19an, zapatuan, izango da sari banaketa eta datozen egunetan jakingo da nori emango zaion aipatutako sari hori.

### Udaletxeko telefono zenbakiak

Udaletxean telefono zenbaki berriak daudela gogorarazi gura da. Orain arte zaharra martxan egon bada ere hemendik aurrera ez da horrela. Hona zenbaki berriak: harrerako zenbaki 711862 da, udaltzaingoa 711863 eta faxarena 711864.



**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4  
Araba Ibilbidea  
20550 ARETXABAleta  
Tfnoa.: 943 791844 / Faxa: 943 792941  
info@eguzkigraf.com

**REGIANDO**

**optika**

Loramendi, 10  
Aretxabaleta  
Tel. 943 79 98 21



**FELIX PAGALDAY**

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea  
ARETXABAleta  
Tel. 943 77 00 33/79 42 56

**KULTURA/** Poliki-poliki galtzen ari ote den beldurra dago

# Santa Ageda ohitura dela eta, Udala kezkatuta dago

MIRARI ALTUBE

**Aretxabaletako Udala Santa Ageda ohitura aztertu eta berreskuratu guran dabil. Horrela, aurtengo Santa Ageda mutilekin sortu diren tira-birak ikusita, herritar guztiei batzar baterako dei egin zien. Astelehenean izan zen eta zortzi lagun agertu ziren.**

Aurten, 24 bat mutili tokatuko zaie Santa Ageda gogoratuz lehenengo batzera atera eta gero herriko plazan dantzan egitea. Udala-rekin izan dituzten tira-birak direla eta, inork ez daki zer geratuko den.

### BATZARRETRAKO DEIA

Aurreko urteko martxo inguruan hasi zen Udala Santa Ageda mutilekin harremanetan jarri eta ohi-turari buelta eman guran. San Juan bezperako ekintzak, ostera, ez ziren Udalak uste bezala gertatu, eta hori lotu guran uztailean beste batzar baterako dei egin zien 1983an jaiotako mutilei. 24tik hiruzpalau besterik ez ziren agertu, eta Anjel Bergaretxe alkateak Santa Ageda egunean gertatu behar zenaren kezka azaldu zien. Gauzak horrela, mutilak hausnarketa egitekotan geratu ziren.

Erantzunik ez zela heltzen ikusita, urrian, Udalak agerrarazi egin zien Santa Ageda ohitura ospatzeko eran esku hartzeko asmoa zuela, eta azkenik, azaroran, konpromiso batzuk sinatzeko eskatu zien. Konpromiso horiek lau mutilek baino ez zuten sinatu, eta hauen eta sinatu baken artean tira-birak sortu ziren.

Udalak, nora jo ez zekiela, herritarrei egin zien dei arazoaren berri emateko eta, era berean, irtenbideren bat asmatzen lagun ziezaioten. Asteleheneko batzarrean zortzi lagun izan ziren.

### OHITURA BERRESKURATU BEHARREAN

Azken urteetan, poliki-poliki Santa Ageda ohitura aldatzen eta galtzen hasita dagoela esan zuen Anjel Bergaretxek: "Janzkera ez da errespetatzen, kantuak ez dira behar bezala ikasten, baserri eta etxe guztietatik ere ez da pasatzen,



Santa Ageda mutilekin sortu diren tira-biren berri eman zuten astelehenean.

*Suiziriak  
jaurtitzeko orduan  
ere ordutegia eta  
kopurua zehaztu  
gura ditu*

dantzan ere hala-hola egiten da... Nik uste dut ohitura galtzen hasita dagoela eta berreskuratu egin behar dela", dio Anjelek.

Bestalde, suiziriak jaurtitzeko orduan ordutegia eta botatzen den kopurua zehaztu gura ditu Udalak, baita zelan botatzen diren ere. Izan ere, urterik urtera zarata handiagoa ateratzen duten eta apurketa gehiago egiten saiatzen diren susmoa dago herritarren artean.

Asteleheneko batzarrean esan

zen ohiturari buelta eman eta datorren urteari begira beste era batera antolatu beharko litzatekeela. Gainera, denbora pasatzen utzi barik, otsailean bertan gura dute datorren urteko Santa Ageda mutilekin harremanetan hastea.

Batzarrea agertutako guztiak, bestalde, gertu azaldu ziren aurtengo Santa Ageda mutilei laguntzeko, eta denbora laburra badago ere, adierazi zen ahalegina egin daitekeela ekintzak txukun egin ditzaten. Alkatearen esanetan, Udalaren eskuetan zegoen guztia egin da eta ikusita lortutako emaitzak ez direla batera egokiak izan, ez ei dute beste ezer egingo.

1983ko Santa Ageda mutilek herria begira izango dute otsailean. Ea beste urte batzuetakoei baino jarrera hobea agertzen duten eta, zarata handiegirik atera barik, ondo pasatzen duten.

## LABUR

### Hasi dira Andra Mari auzuneko etxebizitzaren aurrealdean zaharberritze lanak

Aste honetan bertan hasi dira Andra Mari auzuneko etxebizitzaren zaharberritze lanak. IDHECO enpresa eraikitzaileko langileak, 1. atarteko etxebizitzaren hormak apurtzen hasita daude jadanik. 40 urtetik gora dituzten etxebizitzetako aurrealdeak goitik behe-ra berrituko dira, oso egoera eskasean baitaude, eta luze joango dira lanak.

### Loramendi literatura lehiaketako sari banaketa egingo da urtarrilaren 17an

Aretxabaletako eskola arteko XIII. Loramendi literatura lehiaketako sari banaketa egingo da datorren egunean. Lehen Hezkuntzakoek aurkeztutako ipuin eta poesiek, eta DBHkoen ipuin, kantu eta kontu zaharren bilketa onenek sariak jasoko dituzte arratsaldeko 19:00etan udaletxe zaharrean.

### Aste honetan eta hurrengoan izango dira Udaleko lanpostuetarako azterketak


Udalak hiru lanpostu kaleratu zituen eta izena eman zutenek azterketak egin behar dituzte orain. Peoi-ehorze laguntzaile lanpostura aurkeztutako lau lagunek eguaztenean izan zuten azterketa. Bestalde, Kultura teknikari eta Kultura teknikari laguntzaile izan gura duten 30 lagun baino gehiagok 16an izango hitzordua.

## TXUTXUMUTXUA



### Aretxabaleta Iturgintzak lehenengo saria

Gabonak joan dira, baina oraindik haien arrastoari jarraiketa gabilta. Astelehenean bertan, Udaleko Kultura Sailak erakusleho lehiaketako sariak banatu zituen. Lehenengoa Aretxabaleta Iturgintzak jaso zuen, 35.000 pezeta saria, bigarrena Zare dendak (25.000) eta hirugarrena Pagaldai opari dendak (15.000). Guztira, 25 bat komertzio parte hartu dute erakusleho lehiaketan, eta denentzat ez bada ere saririk izan, herritarren esker ona guztiendako da. /M.A.



**Eskoriatzan salgai partzelak eta etxebizitza adosatua**

Tel.: 943 79 59 99  
Faxa: 943 79 92 00  
Maalako Errabala, 27 behea-ekz.  
ARRASATE

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



**URKULU, S.L.**

Mitarte, 23  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

**Mobiliario ARENAZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**Jauregi Okindegia**

Otalora, 10.  
Tel.: 943 79 57 47  
ARETXABALETA

## FOTOKIROLA



## Urrezko intsignia jaso zuen Jonan Larrinagak UDaren izenean

UDako preferenteko taldean hamar urte baino gehiago egin dituen Jon Ander Larrinagak urrezko intsignia jaso zuen abenduaren 30ean, Bixente Etxeandia UDako presidentearen eskutik. Taldeko lagunek ongiatorria egin zioten eta jarraitzaileen eta kazetarien aurrean intsignia eman zion Bixentek hunkituta zegoen jokalaria ohiari. Jonanek, 99-00 denboraldia egin ostean, futbola uztea erabaki zuen, baina UDako arduradunek, oraindik taldeari asko eman ziezaiokeela ikusita, itzultzeko eskatu zioten. Izan ere, hura izan zen bai denboraldi hartako bai beste batzuetako golegile nagusia. Denboraldi honetan min hartu ostean, berriz, futbola uzteko ordua zela erabaki zuen Jonanek. Omenaldia, haren lan eta sakrifizioen ordaina besterik ez da izan. /MIRARI ALTUBE

## Joma taldea nagusi Gabonetan jokatu den Peña Zubi txapelketan

M.A.

Urtero moduan, abenduaren 27 eta urtarrilaren 4a bitartean Peña Zubi gaztetxoek futbol txapelketa jokatu da. Aurten, aurreko urteetan baino parte hartze txikiagoa izan da, sei talde besterik

ez da-eta ibili. Edozelan ere, giro ona izan da nagusi txapelketan.

**11-12 URTE BITARTEKO GAZTETXOAK**  
1989 edo 1900. urteetan jaiotako gaztetxoendako zen deialdia, baina gazteagoek ere hartu dute parte. Bergarako talde bi, Arrasate-

ko beste bi eta herriko bi ibili dira norgehiagokan. Azkenean, arrasatearrez eta aretxabaletarrez osatutako Joma taldea nagusitu zen. Haren ostean, Canas Esteban, Esko Sport, Zangui, Madura eta Uda txiki taldeak geratu ziren. Hori bai, denek izan zuten saria.

## PILOTA

## Debarroko Txapelketa hasi berri da eta Udaberriko Torneoa ere laster hasiko da

Herriko pilotariak txapelketaz txapelketa dabiltza azkenaldian. Debarroko Txapelketa hasi zuten joan den zapatuan; eskoriatzarren aurka jokatu zuten, eta hurrengo partiduak Arrasateko pilotarien kontra jokatu beharko dituzte. Pilota federazioak, bestalde, Udaberriko Torneoa jarri gura du abian. Zapatu honetan jokatu dira lehenengo partiduak, batzuk etxean eta beste batzuk kanpoan izango dituzte. Debarroko partiduak astean zehar jokatu dira eta besteak aste bukaeran.

## XAKEA

## Fran Miguel bigarren geratu da Gabonetan egin den Gipuzkoako Xake Txapelketan

Maila guztietako xake jokalariek parte hartzen duten Gipuzkoako Xake Txapelketa jokatu zen Donostian abenduaren bukaera eta urtarrilaren hasieran. 31 parte hartzaile izan ziren, tartean Fran Miguel eta Aitor Alcaide aretxabaletarrak. Esan beharra dago Gipuzkoako jokalaria onenen hutsunea sumatu zela. Aitor Alcaidek zortzigarren bukatu zuen txapelketa eta Fran Miguelek bigarren, lehenengoarekin berdinduta. Hori dela eta, Euskadiko Txapelketan parte hartzeko sailkatu da Fran.

## PILOTA

## Asier Errasti eta Gorka Madinabeitia garaile federatu bako esku pilota txapelketan

Aretxabaletako Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatutako federatutako gabekoendako esku pilota txapelketa abenduaren 30ean bukatu zen. Norgehiagoka gogorra jokatu ostean, Asier Errasti eta Gorka Madinabeitia aretxabaletarrak izan ziren txapelkunak. Bigarren postuan Egoitz Garziaetxabe eta Xabi Eraña gelditu ziren eta hirugarrenean, Iban eta Argider Isasti anaia oñatiarrak.

## JOKATZEKOAK

## FUTBOLA

**Berio-UDA**  
Preferentea.  
Domeka. 12:00. Donostia.  
**Oiartzun-UDA**  
Bigarren mailako erregionala.  
Zapatua. 15:45. Oiartzun.

## PILOTA

**Udaberriko Torneoa**  
**Aretxab.-Lazkao**  
Bigarren mailako kadeteak.  
**Aretxab.-Añorga**  
Gazteak  
Zapatua. 18:00. Iturrigorri.

## EMAITZAK

## FUTBOLA

**Mundarro 2 UDA 0**  
Preferentea.  
**UDA 2 Tolosa 1**  
Gazteen Euskal Liga.  
**Aitzgorri 1 UDA 2**  
Lehenengo mailako kadeteak.  
**UDA 0 Tolosa 3**  
**Beraun AAVV 3 UDA 0**  
Bigarren mailako kadeteak "igo-  
era".  
**Almen 1 UDA 4**  
Lehenengo mailako infantilak.

## PILOTA

**Debarroko Txapelketa**  
**Aretxab. 4 Eskoriatza 22**  
Kadeteak.  
**Aretxab. 12 Eskoriatza 22**  
Gazteak.  
**Aretxab. 22 Eskoriatza 14**  
Seniorrak.

KUTXA-REAL SOCIEDAD TXARTELAK  
Oso Realzaleentzat bakarrik

Zu bezalako pertsonentzat, Reala oso modu berezian sentitzen dutenentzat, pentsatuak daude **Kutxa-Real Sociedad Maestro eta MasterCard** txartel berriak. Txartel hauek erabiltzeagatik, prestazio finantzario guztiez gainera, opariak ere lortu ahal izango dituzu. Anoetako partiduetarako sarreren zozketan parte hartu, eta bi pertsonarentzako bidaia baten zozketan ere bai,

gure taldea bere desplazamenduetako batean laguntzeko.

Gainera, 2002ko otsailaren 1a baino lehen eskatu eta erabiltzen baduzu, CD zoragarri bat, Txuri-Urdin abestiaren 5 bertsio berezi biltzen dituen, eramango duzu opari.



Eskatu kutxaren bulegoetan edo [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) helbidean.

**kutxa**

zure diruaren balio erantsia

ERRETRATUZAHARRA

## Eskola ostean ahuntzak zaintzen

Cosme Urtzelaik ahuntzak hazten zituen Cerrajera Valle Leniz lantegi ostean zeukan txabolan. Ez bakarrik ahuntzak, oiloak ere ba ei zituen. Uda partean, Kurtzebarri inguruan, Zاراia mendian ibiltzen ziren animaliak, harkaitzetan puntarik punta ibili ere, eta neguan etxe aldera ekartzen zituen, txabolara, hain zuzen. Gaur egun ere, txabola haren arrastoa ikusteko moduan dago lantegiaren atzealdean. Cosmeren semeak eta haien lagunak prest izaten ziren beti eskola ostean ahuntzak zelaira atera eta jolasean ibiltzeko. Eskolan ematen zizkieten etxerako lanak egitea baino gurago zuten, antza denez, ahuntzak zaintzea.

Argazkia 1958. urte ingurukoa da eta Lausittako bidean aterata dago. Atzean Bedarreta auzoko etxeak ikusten dira. Argazkian, berriz, **Jesus Iturbe, Jesus Mari Arenaza, Javier Elkoro, Pedro Jose Urtzelai, Angel Osinaga, Zubiria** (behean), **Angel Akizu, Juan Luis Iturbe, Jesus**



**Mari Errasti eta Javier Urtzelai** ageri dira ahuntzak beso artean dituztela. Gaurko umeek ere oso gogoko dituzte animalia eta abereak, eta ordukoek ere berdin. Ikusi besterik ez dago zein pozik azaltzen diren erretratuan.

Ahuntzek ere ez zuten aspertzeko

aukerarik izaten mutiko koadrila hura agertzen zenean. Gustura hartzen zituzten, gainera, mutikoek ekarritako ogi muturrak eta sagar azalak, hori barrabaskeriaren bat egiten ez bazieten, behintzat. Zelaian jolas batzuk egin eta gero, ahuntzak txabolara eta mutikoak etxera. Hori bai, hurrengo

egunean ere agertuko zirela zin eginez.

Antza denez, Cosme Urtzelaik, hura zendu zenean, Pedro Jose semea-ri utzi zion ahuntzen ardura eta zaintza.

Argazkia: Ramon Mari Elkoro

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

## Durana kale bukaera eta plaza barrena

Itxura baten gauzak askorik ez direla aldatu iruditzen, ondo begiratuta, aldaketa ugari suma daitezke. Errepide nagusia herri erdierditik pasatzen zen. Gaur, ostera, norabide bakarra dauka Durana kaleak eta egun erdiz besterik ez dago zabalik oinezkoendako. Pergola berria da, eta plaza barreneko mugak ere hor egon arren, moldatuta dago.



**+ 1980** Orduko automobilak guztiz desagertuta daude gure errepideetan. Espaloia eta baranda ere ez daude.



**2002** Pergola eraiki zenean asko aldatu zen plaza barrenaren itxura. Gero, oinezkoendako bide zabalagoa egin zen, baita plazarako sarrera ere.



# LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

# Zebarri?

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko urtarrilaren 11a / 63. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana, 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com

## ‘Euskal Herritik mundura zorionak eta urte berri on’, esan du erakusleihoak

AINTZANE GADOKI

Gabonetako erakusleihoen lehiaketan herri guztiko denda eta tabernekin parte hartzeko aukera izan badute ere, partaidetza txikia izan da aurten. Guztira, sei denda eta taberna bakarrik aurkeztu dira. Adeli dendak jaso du lehenengo saria.

Guztira, hiru sari eman dituzte. Lehenengoa, 35.000 pezetakoa, Adeli dendak jaso du, bigarrena, 25.000 pezetakoa, Zubia Harategiak eta hirugarren saria, 15.000 pezetakoa, Namaste dendari egokitu zaio. Tabernekin dagokienek, eta bakarrik aurkeztu denez, hark eraman du saria. Arantxa Untzuetak Kultura teknikariak adierazi du lehiaketaren helburua herri Gabon giroa bultzatzea dela: “Zuhaitza eta argiak jartzen diren moduan, erakusleihoak ere apaindu nahi ditugu, baina ez da lehiaketa arrakastatsua, komertzio gutxi ditugu eta herriak”.

### “ONGI ETORRI GURE IBILALDIRA”

Mezu horrekin egin die agur Adeli dendan Olentzerok eskoriatzarrei. Ordenagailu pantaila baten



Plastilinez egindako mundu osoko panpinak daude oraindik ikusgai.

bitartez, munduari bira emateko aukera izan da Gabonetan, plastilinez egindako mundu osoko 31 panpinarekin apaindu dute eta erakusleihoa. “Euskal Herria

munduarekin eta mundu osoa gurekin lotzen zuen zerbait egin nahi genuen. Eta hori asmatu. Zailena ilea eta jantziak egitea izan da. Ordu asko eman ditut, baina

merezi izan du” dio Virginia Rivas. Orain ez daki zer egingo duen panpinok. “Gorde egin nahi ditut. Erostera etortzen dira, ikastolak ere eskatu dizkit, ez dakit”.

“Euskal Herria mundura eta mundua Euskal Herrira ekarri nahi izan dugu”

“Ordu asko eman ditut munduko panpinak egiten. Guztira, mundu osoko 31 egin ditut”

“Ez dakit zer egingo dugun panpinok. Gorde egin nahi ditut; asko erosi guran etortzen dira”

## HERRITARREN HITZA / Iñaki Agiriano

### Elur panpina

Urtean sartu berri, neguan, orain dela egun gutxi. Badira egun batzuk elurak bisita egin zigula. Eta egun hartako argazkiei begira nagoela, elur-panpinaren argazkiak Errusiako estepa zurietara narama. Senar-emazte batzuk urte askotan seme-alaba baten zain bizi izan dira, baina bizitzaren patuak ez die desio hura eman. Senar-emazteak zahartuta eta etsita daude. Baina negu batean, euren begiak leioetara itsatsirik auzoko haurrak elur-panpina baten inguruan jolasten ikusterakoan; sukaldeko epeltasuna utzirik, ametsen

gatibutzatik askatu-rik, kanpora atera eta basoaren beste aldean, sekula izan ez duten eta hain desiatua izan den haur horren elur-panpina egin dute.

Pozik, bere inguruan dantzan eta kantuan hasi dira eta elurrezko panpina zenak bizia hartu eta munduko umerik politena bihurtu zaie. Amodiaren boterearen seinale, agian?

“Amodioa, amairik gabeko inozentzia den aldetik, ez-



“senar-emazteen haurra sukaldeko argia baitzen”

jakintasanaren bizitzeko kontua dela pentsatu izan dut maiz; sinesten ez edo ukatzen ditugun gauzak baitira gehienetan grinarik bizienez eta gartsuenaz bizi ditugunak, sekula egia bilatuko ez diren ametsak eta fantasiak bezala.”

Horrela bizi izan zuten negua, amets gartsu eta erreale baten moduan, senar-emazteen haurra sukaldeko argia baitzen. Baina, haize epelak laino beltzak uxatzen

dituen moduan ametsak amets bihurtzen dira.

Eta udaberriko haize epel gozoak errusiar senar-emazteak ametsetik iratzartu zituen. Haurrak ez baitzuen kanpora irteterik nahi; neguko egunetako poza eta alaitasun zuria, udaberriko egun goxoetan tristura eta etsipen beltz bihurtu baitzen.

Gurasoak, azkenean, kanpora ateratzea lortu zuten, udaberriko haize epelak piztu egingo zuelakoan, baina, eguzkiaren printzek haurraren aurpegia jo zutenean umea galtzen hasi zen.

Elur-panpina urtu egin zen.

## LABUR

### Eskoriatzarrek gatzagarrei futbitoan irabazi

Ohorezko Ligako futbito taldeak pasa den asteburuan Gatzaga eta Legutioko jokalariekin osatutako taldearekin kontra lagunarteko partidua jokatu zuen.

1 eta 0 irabazi zuten kanpitarrei. Partidu bizia izan ondoren adituen ustez, eta giro onak izan zen kiroldegian. Kanpiko taldekideen artean ere futbitoan aritzen direnak batzuen, besteak beste, atezari Euskadiko Selektzioa atezari na da. Martxoan jokatuko den bueltako partidua Legutio



**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**ESKORIATZA**

Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal Bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea.....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea.....	943 71 31 36
Kiroletxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Jose Arana-Almen Ikastol.....	943 71 44 86
Almen.....	943 71 49 07
Museo Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki?.....	943 71 40 77
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetza.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxia.....	943 71 40 59

**BESTELAKOAK**

Eskualde ospital (Arrasate)...	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)...	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga).....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
Pesa (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Delak.....	112

**OHARRAK**

**'ZE BARRI'KO IRAKURLEEI**

Irakurle, gogoratu edozein zorion agur, iradokizun edo eta kexa izanez gero, ZE BARRIko kazetariok atseginez jasoko ditugula zuk esandako guztiak. Hori bai, gutun guztiak sinatuta edo NAN zenbakiarekin jasotzea ezinbestekoa izango da, medio guztietan moduan; bestela ez litzateke egongo modurik argitaratzeko edo erantzuteko.

Gogoratu nahi dizuegu, bestalde, herritarren laguntza ezinbestekoa dela astekaria egiteko; kolaborazioak egin nahi dituen edozeinek ZE BARRIko atek zabalik ditu.

**AXTROKIREN AGENDA**

**ZOKETAKO IRABAZLEA**

Gabon gauean, Axtrokik zozketa egin zuen, egin duen bazkide kanpainari amaiera emateko. Elvi Marqués izango du baserri-turismo haten asteburua pasatzeko aukera

**GIZARTEA**

**Atxorrotx hirugarren mundurako elkarteak kontuen berri eman du**

AINTZANE GARDOKI

Atxorrotx hirugarren mundurako elkarteak egindako lanaren berri, hau da, esku artean dituzten proiektu eta taldearen diru kopuruen berri, eman die herritarrei egunotan. Horretarako, etxe guztietara diptiko bat bidali dute.

Diptikoan orain egiten diharduten proiektua ere aditzera ematen dute. Proiektua Mirador izeneko komunitatean kokatzen da, eta helburua da hangoen bizi kalitatea hobetzen laguntzea eta eraldaketa sozialaren prozesua dinamizatzea. Horretarako, lur-buztinezko eta zink teilatudun 32 etxebizitza egin nahi dituzte. Atxorrotxek, egitasmo hori bultzatzeko asmoz, materiala erosteko eta igeltsero bat kontratazeko dirua emango du.

*Azken urteotan, elkarteak 72.000 euroko diru sarrera izan du, eta beste horrenbeste gastu*

Bestetik, Atxorrotxek diptikoan argi eta garbi adierazi ditu izandako diru sarrera eta gastua. Guztira, 72.000 euroko diru sarrera izan du, eta beste horrenbeste gastu. Lagundu edo bazkide izan nahi duenak badu aukera. Harremanetan jartzeko telefonoa 943715385 da, eta bestela, hileko lehenengo eguaztenean, 19:00etan, Itarte etxera hurreratu besterik ez dago.



Hondurasko Mirador komunitatean dihardu lanean Atxorrotxek.

**ERRETRATUZAHARRA**

**A. Gorosarri ederrena**

**L** 968koa da ondoko argazkia. Orduan, herriko neskatxa ederrena aukeratu zuten, eta hori ospatzen ageri dira, Eskoriatzako dantzalekuan, epaimahaikideekin.

Denen artean politena Agurtzane Gorosarri izan zen (erdian), eta laguntzaileak, Rosarito Pagaldai eta Agustina López. Epaimahaia elkarte bakoitzeko bikote banak osatu zuten: E. Arrietak, Ameriketatik heldu berri zen Filemonek, M.T. Armendarizek, E.Herránek eta C. Belategik.

Argazkia: Maria Teresa Armendariz



**BEIRALAN**



**KRISTALDEGIA**

- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurrira eginiko edozelango lanak egiten ditugu

Lantokia eta Erakusketa: Herriko Plaza, 8  
Tfnoa.-Faxa: 943 78 81 78  
**20560 ARETXABAETA**

**TOKI  
ALAI  
TABERNA**

**Karajiloetan  
espezializatua**

Tel.: 943 71 47 29  
ESKORIATZA



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3  
Tel.: 943 71 31 29/ Eskoriatza 20540

## GIZARTEA

## Uztailerako amaituta egongo da Gatzagaren gaineko diaporama

AINTZANE GARDOKI

Juan Martin Elexpuru idazle uberrak eta Txelu Angoitia argazkilari durangarrak hartu dute Gatzagaren gaineko diaporama egiteko ardura.

Dagoeneko pare bat aldiz izan dira herrian, argazkiak egiten eta herritarrekin hizketan. Herriko eta inguruko paisaiak garrantzi handia izango badu ere diaporama osatzerakoan, herritarren erretratuek ere izugarriko indarra edukiko dute. "Herri dotorea eta polita dugula askotan entzun dugu guztiok, baina herriak eta herritarrok dugun bizi gogoa, bizinahia, da lan horretan azaldu nahi duguna", dio Joxerra Agirreurretak.

Proiektua egiteko, Gatzagako Udalak Eusko Jaurlaritzaren laguntza izan du, eta datorren

*"Erretratuak izango dira protagonista; herriaren bizi gogoa, berriz, mezu nagusia"*

uztailerako egongo da amaituta. Gero, behin lana amaitu ondoren, Gatz Museoan ikusi ahal izango dute diaporama bisitari guztiok.

"Azken produktua zelakoa izango den ez dago guztiz definituta. Egileak horretan esperientzia duten beste batzuekin ari dira harremanetan, Koldo Izagirre, kasu. Baina gauza polita izango da", dio Joxerra Agirreurretak.



Gatzagako historia eta gatzagarren istorioak jasoko dira.

## ATREBENTZIAEZPADA/ Zer eskatzen diozu urte berriari?

MAMEN CALDERA  
etxeoandrea

Erretzeari utzi gura diot. Erosi dagoeneko ez dut egiten, orain lagunei eskatzen diet, hortaz, diru gehiago izango dut poltsikoan; eta, gainera, nire osasunak ere irabaziko du. Ez da gutxi.

ZAPA  
langilea

Gauza asko eska daitezke, baina eskatu behar izanez gero, osasuna, niretako eta etxeoandako, hori da eta garrantzitsuenak. Herrirako, berriz, gasa hel dadila.

GURUTZE ORBEGOZO  
etxeoandrea

Neure buruarekin pozik egotea. Horrela denean, guztia doakit askoz hobeto. Eta denbora luzeagoa ere eskatu gura dut, niretako, senarrarendako eta alabarendako.

INA ESNAL  
etxeoandrea

Orain artean, katarro ederra ekarri dit, behintzat. Abestiak dioen moduan, osasuna, maitasuna eta dirua franko, hori bai!

Eta herritarrondako, autobusa ere gura nuke.

ANA MILÁN  
langilea

Lehenengo, euroarekin ez zoratzeari, bestela, mirariak egiten dituen kalkulagailua beharko dut; eta, bigarrenik, espero dudana ondo eta azkar-azkar etortzea.

## LABUR

## Pilota txapelketa berriro abian zapatutik aurrera

Gabonetako oporraldian atzeratu den hartu dute pilotariak, baina indarberrituta datozen esan digute oraingo astean.

Unaik eta Belokik osatutako bikotea dabil gogor txapelketan, haiek ez dute ez parti bakarra ere galduta. Beste lau zapabost bikoteak artean indarrak oso parekotasuna eutsi daude, eta badira bostak ta entrenamendu premiaz daudenak ere.

Bihartik aurrera gertatu izango dira berriro ere pilotariak.



## Oporrei agur esanda, eskolara

Herriko umeei ere iritsi zaie lanera itzultzeko ordua. Pozik batzuek eta nagi samar beste askok egin zuten lehenengo eguneko buelta.

Oporretan, aldiz, batera eta bestera ibili ei dira umeak, inolako keza barik. Olenztzeroko egunarekin hasi zituzten umeek GURELek antolatutako ekintzak. Inguruko herrietako jolasparkeei bisitaldiak, diapositiba emanaldiak, zinema, ipuin kontaketa... eta askari handia ere izan zuten urte bat amaitu eta bestea ondo hasteko.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada  
**giro!**

**Amets taberna**



Taberna eta kafetegia  
Iparragirre 4. 943 79 01 29

**Dorleta  
taberna**

*Bezeroen zerbitzura*

Loramendi, 8  
ARETXABALETAK  
Tel.943 79 94 15

**GUREA**

*taberna  
jaketxea*

Durana kalea  
ARETXABALETAK  
Tel.: 943 79 20 64

**Taberna Berri**



Durana 26, Aretxabaleta. 943 79 20 67

**URBALTZ  
TABERNA**



Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 943 79 79 79  
ARETXABALETAK

**ZARAIA  
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzuan  
Tel.: 943 79 88 95

MANTEKA ANAIKAK  
Aretxabaleta

**Hirusta jatetxea**

Zatoz gure sukaldean ezagutzera



Ilargi plaza, 4 Tel.: 943 79 06 57

**Baster-Alde jatetxea**



**Sasoiko  
jakiak giro  
onenean**

Galartza auzoa, Aretxabaleta  
943 79 24 58

*Mitartegorai*



Aranburuzabala auzoa, Aretxabaleta  
943 79 17 51

**IZOTZ  
Taberna**

Mitarte, 16  
Tel.: 79 73 65  
ARETXABALETAK

**Txalaparta taberna**



Aranburuzabala 25 ESKORIATZAK

**ALDATZ  
Taberna**

Musika ona entzun dezazun

Tel.: 943 71 41 71  
ESKORIATZAK

**Mirentxu**



Hidalga 10  
Eskoriatza. 943 71 41 67

**COMPOSTELA  
Taberna**


**Olagarro** espezialitatea

San Pedro 12  
ESKORIATZAK  
943 71 48 70

**NAIRA  
Taberna**

Aranburuzabala 16  
Eskoriatza. 943 71 46 71

# GRUPO **RKUZ** 1950-2002



*Arkauz zure etxea da.*



**RKUZ** ALTZARIARI  
Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABAETA

**ETXE MOBEL** ALTZARIARI  
MUCOLES  
Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE

**RKUZ** SUKALDE INTEGRALA  
Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**

**RKUZ** ELEKTROGAILUAK  
Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABAETA **expert**